| ZIURTAGIRIAK ERABILTZEKO BALDINTZAK | CONDICIONES DE USO DE LOS CERTIFICADOS |
|---|---|
| Dokumentu honen helburua informatzea da eta ez da, inola ere, IZENPE, S.Aren (aurrerantzean, IZENPE) ziurtagirien erabiltzaileek nahitaez ezagutu behar duten Osasun Txartel Elektronikorako Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren (aurrerantzean, OTE-ZPD) ordezkoa.<br>Halaber, ez ditu ordezkatzen IZENPEren ziurtagirien erabiltzaileek ezagutu eta onartu behar dituzten harpidedunaren eta egiaztatzailearen kontratuak. | Este documento tiene una finalidad informativa y no sustituye en ningún caso la Declaración de Prácticas de Certificación para la Tarjeta Sanitaria Electrónica (en adelante, DPC-TSE) que se obligan a conocer los usuarios de los certificados de IZENPE S.A. (en adelante, IZENPE).<br>Tampoco sustituyen los contratos de suscriptor y verificador que han de conocer y aceptar los usuarios de certificados de IZENPE. |
| **IZENPE, S.A.rekiko harremanetarako informazioa**<br>Mediterraneoaren hiribidea, 3, 01010 Gasteiz, 945017490 telefonoa, info@izenpe.com helbide elektronikoa, http://www.izenpe.com web orria. | **Información de contacto de IZENPE, S.A.**<br>Avda. del Mediterráneo, 3, 01010 Vitoria-Gasteiz, teléfono 945017490 e mail info@izenpe.com, web http://www.izenpe.com. |
| **Ziurtagiri-motak, baliozkotze-prozedurak eta erabilera-muga**<br>IZENPEk sinadura elektronikoko ziurtagiriak egiten ditu Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitalaren esparruan, ziurtagiri aitortuaren legezko izaerarekin, sinadura elektronikoari buruzko irailaren 19ko 59/2003 Legean ezarritakoari jarraiki. | **Tipos de certificación, procedimientos de validación y limitación de uso**<br>IZENPE emite en el ámbito del Servicio de Certificación Digital para el Sistema Sanitario de Euskadi certificados de firma electrónica con la consideración legal de certificados reconocidos, de acuerdo con lo establecido en la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica. |
| Ziurtagiri-mota hauek egiten ditu:<br>• Euskadiko Osasun Sistemako Aseguratuaren Ziurtagiria. Ziurtagiri | Los diferentes tipos de certificados que emite son los siguientes:<br>• Certificado de Asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi. Es un certificado de |

| | |
|---|---|
| aitortuaren legezko izaera duen sinadura elektronikoko ziurtagiria da, abenduaren 19ko 59/2003 Legearen, sinadura elektronikoari buruzkoaren, 8, 11, 12, 13, 18 eta 20. artikuluetan ezarritakoari jarraiki. Ziurtagiriak Euskadiko Osasun Sistemako aseguratu gisa identifikatzen du harpideduna. Ziurtagiri pertsonala da eta bertan aseguratua bera da ziurtagiriaren harpideduna eta gako pribatuaren edukitzailea, eta bere izenean eta bere burua ordezkatuz jarduten du berorrekin.<br>• Euskadiko Osasun Sistemako Ordezkatutako Aseguratuaren Ziurtagiria. Ziurtagiri aitortuaren legezko izaera duen sinadura elektronikoko ziurtagiria da, abenduaren 19ko 59/2003 Legearen, sinadura elektronikoari buruzkoaren, 8, 11, 12, 13, 18 eta 20. artikuluetan ezarritakoari jarraiki. Ziurtagiri pertsonala da eta bertan harpideduna identifikatzen da Euskadiko Osasun Sistemako aseguratu gisa. Gakoen edukitzailea, aldiz, aseguratuaren legezko ordezkari den pertsona fisikoa izango da.<br><br>**Konfiantza-mugak, baldin badaude**<br>Sinadura elektroniko batekin sinatutako mezu batean konfiantza izateko baldintza hauek hartu behar dira kontuan:<br><br>a) sinadura elektronikoa baliozko ziurtagiria indarrean zegoen aldian egin zen eta egiaztatutako | firma electrónica con la consideración legal de certificado reconocido, de acuerdo con lo establecido en los artículos 8, 11, 12, 13, 18 y 20 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica, que identifica al suscriptor como asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi. Se trata de un certificado personal en el que el suscriptor del certificado y el poseedor de la clave privada es el propio asegurado, que actúa en su nombre y representación.<br>• Certificado de Asegurado Representado del Sistema Sanitario de Euskadi. Es un certificado de firma electrónica con la consideración legal de certificado reconocido, de acuerdo con lo establecido en los artículos 8, 11, 12, 13, 18 y 20 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica. Se trata de un certificado personal que identifica al suscriptor como asegurado del Sistema Sanitario de Euskadi y al poseedor de claves como la persona física que ostenta la representación legal del asegurado.<br><br>**Límites de confianza si existen**<br>La confianza en un mensaje firmado con una firma electrónica se basa en las siguientes condiciones:<br><br>a) la firma electrónica fue generada durante el período operativo de un Certificado válido y puede ser |

ziurtagiri-katea erabiliz egiazta daiteke.

b) konfiantza bidezkoa da egoeren arabera. Egoerek berme osagarriak eskatzen badituzte, berme horiek lortu beharko dira konfiantza arrazoizkoa izan dadin.

c) ziurtagiri-mota egokia da eta indarrean dago.

Halaber, ziurtagiri aitortuaren erabileraren mugak ere hartu behar dira kontuan.

**IZENPEren betebeharrak**

IZENPEk OTE-ZPDan aurreikusitakoaren arabera eskaintzen ditu ziurtagiri-zerbitzuak, abenduaren 19ko 59/2003 Legeak, sinadura elektronikoari buruzkoak, aurreikusitakoa betez.

**Harpidedunen betebeharrak**

Ziurtagirien harpidedunak emandako eta ziurtagirietan agertu beharreko informazioaren egiazkotasuna, osotasuna eta egunerokotasuna bermatu behar ditu; pasahitz pribatuaren eta sinadura sortzeko gailu seguruaren zainketan arduratsua izan beharko du; ziurtagiriak behar bezala erabili beharko ditu eta, zehazki, ziurtagirien erabileraren mugak bete behar ditu; ziurtagiria baliogabetzea ekar dezakeen edozein gertaera jakinarazi behar dio

verificada empleando una cadena de Certificados verificada.

b) la confianza es razonable de acuerdo con las circunstancias. Si las circunstancias requieren garantías adicionales, se deberán obtener tales garantías para que dicha confianza sea razonable.

c) el tipo de Certificado es apropiado y el estado del mismo vigente.

Así mismo se deben tener en cuenta las limitaciones en el uso del Certificado reconocido.

**Obligaciones de IZENPE**

IZENPE presta los servicios de certificación de acuerdo con lo previsto en la DPC-TSE, en cumplimiento de lo previsto en la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.

**Obligaciones de los suscriptores**

El Suscriptor de los certificados deberá garantizar la veracidad, totalidad y actualidad de la información que en su caso aporte y que haya de constar en los certificados, ser especialmente diligente en la custodia de su clave privada y de su dispositivo seguro de creación de firma, emplear adecuadamente el certificado y, en concreto, cumplir con las limitaciones de uso de los certificados, notificar a IZENPE cualquier hecho que pueda implicar la revocación del certificado y las posibles sospechas sobre la privacidad

| | |
|---|---|
| IZENPEri, baita gakoen pribatutasunari buruzko edozein susmo ere. | de sus claves |
| **Egiaztatzaileen betebeharrak**<br>Egiaztatzaileek ziurtagirien egoera egiaztatu behar dute, baldin eta horietan konfiantza izan nahi badute; horretarako, IZENPEk egindako eta www.izenpe.com helbidean argitaratutako azken CRLa kontsultatu behar dute. Horrez gain, ziurtagiria eman nahi zaion erabilerarako egokia den ala ez jakiteko, bere kabuz jaso beharko du informazioa. | **Obligaciones de los verificadores**<br>Los verificadores deben comprobar el estado de aquellos certificados en los cuales desean confiar, consultando la CRL más reciente emitida y publicada en www.izenpe.com. Así mismo deberá asesorarse de forma independiente acerca del hecho de que el certificado es apropiado para el uso que se pretende. |
| **Arduren mugak, ardurak kentzea eta bermeak** | **Limitación de responsabilidad, exoneración de responsabilidad y garantías** |
| IZENPEk arduragabekeriarengatik edo behar adinako ardurarik izan ez delako erantzungo du, OTE-ZPD honetan deskribatutako ziurtapen-zerbitzuei dagokienez, kasu hauetan izan ezik: | IZENPE responderá por negligencia o falta de la debida diligencia en los servicios de certificación descritos en la presente DPC-TSE, excepto en los siguientes supuestos: |
| • IZENPE ez da ziurtagirietako informazioek eragindako kalteen erantzule izango, betiere haien edukiak OTE-ZPDa betetzen badu.<br>• IZENPE ez da ziurtagirien iraunkortasuna agortzearen erantzule izango, betiere OTE-ZPDan aurreikusitako argitalpen-betebeharrak betetzen baditu.<br>• IZENPE ez da sor daitezkeen kalte zuzen edo zeharkako, berezi, intzidentziazko eta emergenteen erantzule izango, ezta eskuratu gabeko irabazien, datu-galeren | • IZENPE no será responsable por los daños causados por las informaciones contenidas en los Certificados, siempre que el contenido de los mismos cumpla sustancialmente con la DPC-TSE.<br>• IZENPE no será responsable por los daños causados por la extinción de la eficacia de los certificados, siempre que cumpla sustancialmente con las obligaciones de publicación previstas en la DPC-TSE.<br>• IZENPE no será responsable de ningún |

| | |
|---|---|
| eta zigor-kalteen erantzule ere (aurreikusteko modukoak izan edo ez), baldin eta horiek ziurtagirien, sinadura digitalen edo OTE-ZPDan eskaintzen edo aurreikusten den bestelako edozein transakzio edo zerbitzuren erabilera, entrega, baimen, funtzionamendu edo funtzionamendu-ezarekin lotuta badaude eta behar ez bezalako erabilerak eragin baditu.<br>• IZENPE ez da ziurtagirian ageri diren datuen zehaztapen-ezagatik harpidedunari edo fede oneko hirugarren pertsonei eragindako kalte eta galeren erantzule izango, baldin eta datu horiek dokumentu publiko baten bidez ziurtatu badira.<br>• Halaber, IZENPE ez da ziurtagiriez fidatzen diren harpidedunek edo hirugarren pertsonek dituzten betebeharrak ez betetzeagatik harpidedunari edo fede oneko hirugarren pertsonei eragindako kalteen erantzule izango. | daño directo e indirecto, especial, incidental, emergente, de cualquier lucro cesante, pérdida de datos, daños punitivos, fuesen o no previsibles, surgidos en relación con el uso, entrega, licencia, funcionamiento o no funcionamiento de los Certificados, las firmas digitales, o cualquier otra transacción o servicio ofrecido o contemplado en la DPC-TSE en caso de uso indebido.<br>• IZENPE no será responsable por los daños y perjuicios ocasionados al suscriptor o terceros de buena fe, por la inexactitud de los datos que consten en el certificado si éstos le han sido acreditados mediante documento público.<br>• IZENPE tampoco será responsable por los daños y perjuicios ocasionados al suscriptor o a terceros de buena fe, por el incumplimiento de los deberes inherentes a la condición de suscriptor o terceros que confían en los certificados |
| IZENPEk erantzukizun zibileko asegurua du, ziurtagiriak sortzeko unean izan daitezkeen eta zehazki egiten den jarduerara zabal daitezkeen hutsuneak eta/edo hutsegiteak berdintzeko. | IZENPE mantiene un seguro de responsabilidad civil que cubre los riesgos de error y/u omisión en la generación del certificado y que se extiende a las actividades que realiza exclusivamente. |
| **Aplika daitezkeen kontratuak, OTE-ZPDa eta ziurtapen-politika**<br>Harpidedunen eta egiaztatzaileen kontratuak | **Contratos aplicables, DPC-TSE y Política de Certificación**<br>Los contratos de suscriptor y verificador así |

| | |
|---|---|
| eta OTE-ZPDa hemen daude argitaratuta: www.izenpe.com.<br><br>**Intimitate-politika**<br>IZENPEren intimitate-politika webgune honetan dago argitaratuta: www.izenpe.com.<br><br>**Legeria aplikagarria eta eztabaiden ebazpena**<br>Espainiako Legea aplikatuko da OTE-ZPDaren eta harpidedunaren eta egiaztatzailearen kontratua exekutatzearen, egitearen, interpretatzearen eta horien balioaren inguruko gai guztietan.<br>Eskumena duen jurisdikzioa, berriz, une bakoitzean Espainiako legeria prozesalak esandakoa izango da. | como la DPC-TSE están publicadas en www.izenpe.com.<br><br>**Política de Intimidad**<br>La Política de Intimidad de IZENPE está publicada en www.izenpe.com.<br><br>**Legislación aplicable y resolución de conflictos**<br>La ley española se aplica en todo lo referente a la ejecución, elaboración, interpretación y validez de DPC-TSE y de los contratos de suscriptor y de verificador.<br>La jurisdicción competente será aquella a la que en cada momento remita la legislación procesal española. |